

ATENTATUA ANDOAINEN



JUAN HERRERO / EFE

Rosa Diez, Carlos Iturgaitz, Maite Pagazaurtundua eta Jaime Mayor Oreja, atzo iluntzean Andoainen.

«Zigor itzazue!»

ASKI DA! PLATAFORMAREN OMENALDIA. Joseba Pagazaurtundua omenez Andoainen egindako ekitaldian hitz gogorrenak Jaurlaritzako eta EAJko «errudun politikoentzat» izan ziren

Imanol Murua Uribe | ANDOAIN

Izenak eman zituen Rosa Diezek, Joseba Pagazaurtundua hilketaren «errudun politiko» izen-abizenak. Juan Mari Atutxa, Juan Manuel Martiarena eta Gervasio Gabirondo, aurreko Jaurlaritzaren arduradun zirenak, «Joseba bakarrik utzi zutelako»; Juan Jose Ibarretxe, «buruzagia bera delako»; eta Xabier Arzalluz, «Aski Da!-ko kide guztiei bizkarrean diana jarri dielako». Eta izenak emanez «pauso bat» ematen ari zela esan zuen Diezek, «Josebaren hilketak aldaketa bat ekarri duelako, egia esateko eta errudun politikoak seinalatzeko gaitasuna eman digulako».

Aski Da! plataformak Joseba Pagazaurtundua omenez atzo iluntzean Andoainen egindako ekitaldian izendatu zituen Diezek «hilketaren errudun politikoak». Diezen aurretik, Joseba Pagazaurtundua arreba Maitek —Urnietako zinegotzi sozialista— eta Ignacio Latierro Aski Da!-ko kideak ere hitz gogorrak izan zituzten «erantzule politikoentzat», hauek izenik aipatu ez bazuten ere.

Maite Pagazaurtundua ekin zion ekitaldiari euskarazko bertso irakurritz, aurrean ehunka lagun eta atzean sei bandera zituela: Europakoa, Espainiakoa, PSOEkoa, UGTkoa, ikurrina

eta pirata, «Joseba pirata bat zelako», Diezen hitzetan. Entzuleen artean ziren, besteak beste, Patxi Lopez, Manuel Huertas eta Javier Rojo buruzagi sozialistak eta Jaime Mayor Oreja eta Carlos Iturgaitz PPko ordezkariak.

«Hiltzaileak» madarikatu zituen aurrena Miite Pagazaurtundua, baita «informazioa pasa dutenak» eta «bihotz gaiztoko patriota faltsuak» ere, baina hitz gogorrenak «patriota faltsuei espazio bat uzten dieten itsuei» eta «bihotz hotzeko politikoei» esan zizkien. «Itxurak gordetzeko, jendea engainatzeko, pankartetara negarti profesionalak bidaltzen» dituztenei «familiarren mespretxua» bidali zien. Eta txaloek eginarazi zioten etenaren ondoren, amaitu zuen: «Eta zuek, hiritarrak, zigor itzazue! Demokratikoki jakingo duzue nola! Gora askatasuna!»

«Bere buruari zintzo esaten diotenenek hil dute»

«Egia esatera» etorri zela esanez hasi zuen hitzaldia Diez eurodiputatuak. Eta egia, bezperan militante sozialista zahar bati entzun zionak laburbiltzen omen du: «Ez dute gaiztoek hil. Bere buruari zintzo esaten diotenenek hil dute». Eta «bere buruari zintzo esaten diotenei buruz» hitz egin nahi zuela esan ondoren, «Joseba bakarrik utzi

zutenen» izenak eman zituen —Atutxa, Martiarena, Gabirondo—. «Josebaren beldurra mespretxatzea» egotzi, «laguntza ukatu ez ezik barre» ere egin ziotela esan, eta «erantzule» horiek guztiek, «Josebari bizkarrean diana jarri ziotenek», EAJko karneta dutela nabarmendu zuen.

EAJko presidente Xabier Arzalluzek atzo Aski Da! kritikatu zuenean plataformako kide guztien bizkarrean diana bat jarri zuela gehitu zuen Diezek, eta Arzalluzek mehatxatua sentitzen dela: «Badakit Arzalluz koldarra dela eta pistolarik ez duela hartuko, baina inork hartzen badu, jakin ezazue, nire izenean, hilketaren erantzulea Arzalluz izango dela».

«Bere buruari zintzo esaten diotenenek» ETaren aurka egiten den guztiaren aurka daudela gaineratu zuen Diezek, «gure askatasunaren galerari esker duten botereari eusteko ETaren hilketak behar dituztelako».

Indarra eta irmotasuna

Ignacio Latierrok «bere proiektu politikoa aurrera ateratzeko» «mehatxua eta izua baliatzen dutenak» kritikatu zituen. «Biktimenek beste politika bat behar dute, eta politika hori abian da», azaldu zuen. «Politika horrek indarra eta irmotasuna behar ditu, eta gu prest gaude emateko, Josebak eman zuen bezala».

ESANAK

M. PAGAZAURTUNDUA (Joseba Pagazaurtundua arreba)

«Pankartetara negarti profesionalak bidaltzen dituzuen bihotz hotzeko politikook, jaso ezazue familiarren mespretxua»

IGNACIO LATIERRO (Aski Da!-ko kidea)

«Indar eta irmotasun honi eusten badiogu, egun triste honetan ematen duena baino lehen irabaziko dugu»

ROSA DIEZ (PSOEko eurodiputatu)

«Xabier Arzalluzek diana bana jarri du gu guztion bizkar gainean»

Bere hitzetan, «indar eta irmotasun horri eusten badiogu, hemen bildu garen moduan biltzen jarraitzeko gauza bagara, irabazi egingo dugu, egun triste honetan ematen duena baino askoz lehenago irabazi ere».

Guardia Zibilaren ereserkia —«Josebak oso atsegin zuen», Diezen hitzetan— Internazionala eta *Adios a las penas de Abril* «abesti pirata» entzunez bukatu zuten Goiko Plazako ekitaldia, eta hilketaren lekura abiatu ziren. Daytona tabernaren parean, hildako udaltzainaren senideek kandelak eta lore sorta bat jarri zuten, «Joseba, hemen gaude» eta «Askatasunaren alde borrokan jarraituko dugu» afitxen gainean, txalo eta askatasunaren aldeko oihuen artean.

Atentatua gaitzesteko minutu bateko isilunea egin dute Europako Parlamentuan

Minutu bateko isilunea egin zen, atzo, Estrasburgoko legebiltzarrean Joseba Pagazaurtundua aurkako atentatua gaitzesteko. Legebiltzarreko presidente Pat Coxek esan zuen Pagazaurtundua hilda bizitzeko eskubidea ukatzeaz gain, demokratikoki adierazteko eskubidearen aurka ere egiten dutela hiltzaileek. Koldo Gorostiaga EHko eurodiputatuak elkarrizketa politikoa bideratzen laguntzeko eskatu zion legebiltzarrari.

Hezkuntza sistema ez «susmopean jartzeko» eskatu dio Iztuetak Fernando Savaterri

Anjeles Iztueta EAEko Hezkuntza sailburuak atzo esan zuenez, Fernando Savater Aski Da plataformako kideak hezkuntza sistema «iraindu» du, eta horrela «ez da ezer lortzen». Hezkuntza sistema ez dezala «susmopean jarri» eskatu zion. Atentatuari buruz hitz egiten, Savaterrek esan zuen Ikastolan ibilitako gazteek «jarrera kriminal eta xenofoboak» dituztela. Euskadiko Eskola Kontseiluak ere kritikatu zituen hitzok.

Perez Esquivelek dio «hilketekin soilik arazoa larriagotu» egiten dela

Bakearen Nobel saridun Adolfo Perez Esquivel argentinarrek Pagazaurtundua hilketa gaitzetsi zuen atzo, Alacanten buruturiko «Oinarritzko Eskubideak, XXI. mendeko erronka» hitzaldiaren harira. Perez Esquivelen ustez, «hilketekin ez da inongo arazorik konpontzen, larriagotu baizik» eta «datorren tokitik datorrela ere, inolako atentatu terroristarik onartzen» ez duela gaineratu zuen.

Ertzain batek airera tiro egin du, pertsona «susmagarriak» ikusita

Ertzain batek airera tiro egin zuen atzo Bilboko garaje batean. Gertaera 09:15 aldera izan zen Bilboko Txurdinaga auzoan, ertzaina autoa erretiratzera zihoanean. Garajearen zeuden lagun batzuei «jarrera susmagarria» ikusi zien ertzainak eta bere bizia arriskuan egon zitekeela pentsatu zuen. Hori dela eta airera tiro batzuk egin zituen, eta aipatu pertsonak lasterka joan ziren.